

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

3623

EBAZPENA, 2012ko ekainaren 21ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, Usurbil, Lasarte-Oria, Donostia-San Sebastián, Pasaia eta Erreterriako udal-barrutietan, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak sustatutako Donostialdeko Metroaren proiektuaren (1. fasea) Ingurumen-inpaktua formulatzeko dena.

2004ko abenduaren 10ean, Ingurumeneko sailburuordeak emandako Ebazpenaren bidez, Usurbil eta Añorgako geltokien artean, Euskotren Bilbao-Donostia linearen bikoizketa-proiektuaren ingurumen-inpaktuari buruzko deklarazioa egiten da.

2008ko apirilaren 22an, Ingurumeneko sailburuordeak emandako Ebazpenaren bidez, Lasarte-Hendaia trenbide-linearen (Loiola-Herrera tarteak) bikoizketa-proiektuaren, zehazki, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak sustatutakoren ingurumen-inpaktuari buruzko deklarazioa formulatu zen.

2012ko martxoaren 8an, Ingurumeneko sailburuordearen Ebazpenaren bidez, Donostialdeko Metroaren (Lugaritz-Anoeta tarteak) proiektuaren, zehazki, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak sustatutakoren ingurumen-inpaktuari buruzko deklarazioa formulatu zen.

2012ko martxoaren 22ko Ingurumeneko sailburuordearen Ebazpenaren bidez, Herrerako eta Galtzarabordako geltokien artean trenbidea bikoizteko eta Altzan geltoki berria egiteko proiektuaren ingurumen-inpaktuari buruzko deklarazioa egin zen. Proiektu hori Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak sustatu du, Donostiako, Pasaia eta Erreterriako udal-barrutietan eraikitzeko.

2012ko uztailaren 14an, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak honako hau eskatu zuen: aipatutako proiektuen ingurumen-inpaktuari buruzko deklarazio bakarra.

«Metro de Donostialdeko Metroa (1. fasea)» izeneko proiektu bakarraren parte dira gorago aipatutako trenbide-tarteak.

Kontuan izanik aztertutako tartearen hasiera eta bukaera lehendik dagoen trenbide-linearen geltokietan direla, haietariko bakoitzaren trazadura ez du baldintzatzen gainontzekoen trazadura.

Lehendik dagoen trenbide-linea baten bikoizketa denez batez ere, uste izatekoa da tokiko ingurumen-inpaktuak bakarrik sortuko direla, eta ez dira atzeman munta handiko ingurumen-baldintzapenak, tarteak guztien ingurumen-inpaktua ebaluatzean atzeman zitezkeenez bestekoak.

Kontuan izanik, trazadura berriko tarteak lurpetik doazela eta haien guztizko luzera 7 kilometrotakoa dela, inpaktua ez da handia, eta delako tartearen atzemandako inguru-inpaktuak tokikoak baino ez dira.

Donostialdeko Metroaren (1. fasea) proiektuko tarteetarako ingurumen-inpaktuari buruzko deklarazio bakarrean egiten du adierazpena ingurumen-organismoak; beraz, Metroa eraikitzeko mailegu bat lortzeko, BEIren betekizun bat da.

Kontuan izanik ingurumen-inpaktuei buruzko deklarazioetan ezarritako baldintzak bat etorri behar dutela aipatu deklarazioak egin ostean indarra hartu duten arautegi berriarekin.

Kontuan hartuta organo honek eskumena duela ingurumen-inpaktuari buruzkoa deklarazioa egiteko, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Kontuan izanik: Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Proiektuen ingurumen-eraginaren ebaluazioari buruzko Legearen testuategia onartu zuen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua; Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretua, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren; eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea, eta aplikazioko gainerako arauak,

EBAZTEN DUT:

1.– Usurbil, Lasarte-Oria, Donostia-San Sebastián, Pasaia eta Errenteriako udal-barrutietan, Donostialdeko Metroaren (1. fasea) proiektuaren, zehazki, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak sustatutakoaren ingurumen-inpaktuari buruzko aldeko deklarazioa ematea.

2.– Ondoren aipatzen diren baldintzak ezartzea proiektua egiteko. Baldintzok lotesleak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren arabera.

2.A.– Proiektua gauzatuko da ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztutako agirien arabera, eta, zehazki, ebazpen honetan jasotako zehaztapenei jarraiki.

2.B.– Proiektua aldatu edo handitu nahi izanez gero, urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar da, bere II. eranskineko 9.k) epigrafearekin bat. Horren bidez onartu zen proiektuen ingurumen-inpaktua ebaluatzeko Legearen testuategia.

Proiektuan egingo diren aldaketa puntualek aurreko idatzi-zatian adierazitako garrantzirik ez dutenean, obrak gauzatzeko falta diren gainerako izapideak egiteko garaian sortuz gero, ingurumenaren ikuspegitik ere arrazoitu egin beharko dira aldaketa horiek. Halaber, dagozkion aldaketak proiektuan jaso beharko dira, non-eta proiektuaren neurri babesle eta zuzentzaileetan, ingurumena zaintzeko programan, aurrekontuan eta baldintza-agirietan.

2.C.– Neurri babesle eta zuzentzaileak.

Neurri babesle eta zuzentzaileak gauzatuko dira, betiere, egitasmoaren sustatzaileak ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko aurkeztutako agirietan jasotakoaren arabera. Horrenbestez, ezarritako neurrien hedadurak eta kontrola gauzatzeko jarritako langileek bermatu behar dituzte ingurumen-inpaktuei buruzko azterketan finkatutako kalitate-helburuak, bai eta ingurumen-inpaktuari buruzko adierazpen honetan ezarritakoak ere. Ondorengo idatzi-zatietan adierazitako neurriak ere gehitu beharko dira.

Neurri guztiak obra kontratatzeko baldintza-agirietan jaso beharko dira, eta baldintza guztiak beteko direla bermatzeko aurrekontua izan beharko dute.

2.c.1.– Natur ondarea babesteko neurriak.

Urriaren 20ko 7/2006 Foru Arauak, Gipuzkoako mendiei buruzkoak, eta urtarrilaren 16ko 4/1990 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko flora-espezie batzuk babestekoak, xedatutakoa betetzearen kalterik gabe, neurri hauek aplikatuko dira:

a) Lanak eta laguntza-lanak, baldin eta lurzorua okupatze badakarte, proiektua gauzatzeko ezinbesteko gutxieneko eremuaren barruak burutuko dira; edonola ere, ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanetan ezarritako eraginpeko eremuaren mugen barruan. Aipatu muga horietan, obrako ibilgailu eta makinariaren zirkulazioa ahalik eta gehien murriztuko da.

Adierazi den eremutik kanpo ustekabeko eraginik gertatzen bada, zuzentzeko eta leheneratzeko neurri egokiak aplikatuko dira, ebazpen honetako 2.c.11 idatzi-zatian ezarritako ingurumen-aholkularitzak txostena egin ondoren.

b) Obrako sarbideak; makinariaren parkea; obrarako materialak, lur-indusketetako multzoak eta hondakinen aldi baterako bilketa-eremuak honela taxutu eta kokatuko dira: ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanetan ezarritako baldintzak kontuan izanik, eta edonola ere, ingurumen-inpaktu txikiena izateko irizpideekin bat etorriaz.

c) Kontratistek egokitu egin beharko dituzte obrarako laguntza-instalazioak, egingo diren jardueren ondorioz sortzen diren ingurumen-inpaktuak ahalik eta txikienak izateko.

Kontratistaren Instalazio-eremu horien mugaketa eta ezaugarriak obrako zuzendaritzak onartu beharko ditu, ebazpen honetako 2.c.10 idatzi-zatian adierazitako ingurumen-aholkularitzaren txostena ikusi ondoren.

Beherago zerrendatutako planoetan jasotakoak dira:

- Usurbil-Añorga tartearen trazadurari buruzko proiektuko 15. planoak.
- 16. planoak: Loiola-Herrera tartearen proiektuko «Partzelazioa eta desjabetzeak»
- 12.1 planoak: «Instalazioak eta obrarako sarbideak. Laguntza-instalazioak», Lugaritz-Anoeta tartearen proiektukoak.
- 9. planoak: «Desjabetzeak eta aldi baterako okupazioak» Herrera-Galtzaraborda tartearen proiektukoak.

d) Idatzi-zati honen a) puntuan adierazitako eragin-eremuaren mugen barruan, okupazio zuzenik aurreikusi ez den eremuetan saihestu beharko da bertako zuhaitzak soiltzea. Horretarako, obrak hasi baino lehen, zehatz-mehatz mugatu eta balizatu beharko dira obrak gauzatzeko nahitaez ebaki behar ez diren zuhaitzak eta zuhaitz-unadak. Zehaztapen hori obraren zuzendaritzak – kasu bakoitzean diharduenak – onartu behar du, ebazpen honetako 2.c.11 paragrafoan ezarritako ingurumen-arloko aholkularitzaren txostena jaso ondoren.

Ikusi da, bereziki eta lanetan zehar, lehentasunez tratatu behar direla honako zonak:

- Usurbil-Añorga tartearen proiektuko 23.3 eranskinen 11., 12., 19. eta 20. planoetan kartografiaturik agertzen direnak.
- Usurbil-Añorga tatean, 99+200 p.k eta 99+900 p.k tartean, Oria ibaiaren eskuinaldea eta zeharkatzen diren errekatxoak.
- Luis Villasantea parkearen magalak eta Arabaizenean parkea.
- Galtzaraborda zonak.

e) Ori eta Urumean ibaien eta euren ibaiadarren inguruetan gauzatzen diren tarteeetan aurrezaintza neurriak areagotu egingo dira, honako hauetan ahalik eta eragin denborazko eta espazial txikiena sortuaz: oro har ibaien ekosistema eta ibai-ertzetako landaredia.

Proiektuak eragiten dien ibai eta errekatxoek bide-zortasuneko aldeetan, ekidin egingo da aldi baterako edo iraunkorra den okupazioa, ahal den neurrian. Edonola ere, alde horiek ahalik eta egoera naturalenena geratu beharko dute, betiere haien funtzioa galarazten duen betetze, itxitura edo beste okupaziorik gabe.

Horretarako, eraikuntza-proiektuak eta obra kontratatzeke baldintza-agiriekin eraikuntzako teknika eta ohitura onak erabili beharra ezarriko dituzte, adierazitako helburu hori bete dadin.

Urumearen gaineko zubia baldintza hauek bete beharko dira: ibilguaren morfologia eta dagoen landaredia errespetatuaz; eta, bereziki, ibilguan eta ibai-ertzak lehengo baldintzetan mantenduaz.

f) Proiektuko ingurunean honako hauen presentzia atzeman da: martin arrantzalean (*Alcedo taitis*), lazkarri arrunta (*Acrocephalus scirpaceus*), txirritxo txikia (*Charadrius dubius*) eta belatz handia (*Falco peregrinus*); guztiak ere, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan sartutako espeziak. Espezie horiei edo euren habitatei eragin diezaiekeen edozein ekintza egin aurretik, Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legean eta Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda arautzeko uztailaren 9ko 167/1996 Dekretuan xedatutakoa hartuko da kontuan, baita, hala badagokio, foru-organo eskudunak ezarritakoa ere.

g) Urumean gaineko zubia egiteko lanetan izokin atlantiarrari (*Salar* izokina) ahalik eta gutxien eragiteko, exekuzio-egutegi bat finkatuko da, zeinetan kontuan hartuko baitira, ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanean deskribatutakoarekin bat, espeziaren migrazio-mugimenduak, betiere foru organo eskudunak hartarako ezarritakoa dituzan irizpideak errespetatuaz.

2.c.2.– Ura eta lurzorua babesteko neurriak.

Aplika daitezkeen prozeduren esparruan uren arloko organo eskudunak egoera honetan ezarriko dituen baldintzez gain, honako neurri babesle eta zuzentzaile hauek ere hartu beharko dira:

a) Eraikuntza-lanak egin bitartean, ahalik eta material xehe gutxien bota behar da drainatze-sarera. Horretarako, urak bideratzeko gailuak eta sedimentuak atxikitzeke sistemak proiektatu eta gauzatuko dira, obren ondorioz kutsatutako urak bertan biltzeko.

Laguntza-instalazioetan eta makinariaren parkean, dekantazio-baltsak eta solidoak atxikitzeke dispositiboak izango dira, eragingarriak izanik hidrokarburoak separatzeko sistemak dituztenak.

Proiektatutako tuneletako sarbideetan dekantagailu lamelarrak jarriko dira, indusketatik etorriko diren efluenteak tratatzeko prentsa-iragazkiekin.

Gailu horien neurriak ezartzean, beharrezko kalkulu hidraulikoak egingo dira, solidoen atxikipen ezin hobe bermatzeko, eta, nolatan ere, isurketa horiek lokalizatuak eta indarrean dagoen araudiaren arabekoak izango direla bermatuko da, uraren parametro fisiko eta kimikoei dagokienez.

Sistema horien ezaugarriak, kokaleku zehatza eta neurriak adierazi beharko dira ebazpen honetako 2.c.12 idatzi-zatian aipatzen den lan-programetan.

Aurreko paragrafoetan aurreikusi diren hondakin-urak tratatzeko sistemen mantentze-lanak egin behar dira aldizka, tratamendu-sistemaren eraginkortasun hobereana bermatzeko eta uneoro erabilera-gaitasun nahikoa daukatela ziurtatzeko.

Dekantatutako jalkinak aldian-aldian jaso eta kudeatuko dira, ebazpen honen 2.c.6 idatzi-zatian aurreikusitakoaren arabera.

b) Ibilguen inguruetan egiten diren lanek dirauten bitartean, aurrezaintza-neurriak areagotu egingo dira, eta neurri babesle eta zuzentzaileak hartuko dira, betiere azaleko ureei kalitateei eragin diezaieketen solidoak eramatea eta isurketa akzidentalak ekiditeko. Ebazpen honetako 2.D puntuan zehaztu ingurumena zaintzeko programaren kasuan, azaleko uretan edo inguruko ur-puntuetan suspentsioan diren solidoak gehitu egiten badira, Ebazpen honetako 2.C.11 paragrafoan zehaztu obrako zuzendaritzak, ingurumen-arloko aholkularitzaren txostena jaso ondoren, aipatu eraginak neutralizatzeko beharrezko neurriak ezarriko ditu (dekantazio-baltsak, drainatze-errateenak edo geotextil iragazleak).

Molinao errekaen ertzetan ez da lurrik hartuko, ez eta ur-laminatik gertu egoteagatik urak kutsatzeko arriskua dakarten beste eremu batzuetan ere. Eremu horietan, ur-laminatik 30 metro atzerago egingo dira lanak, gutxienez, eta urak bideratzeko gailuak eta jalkinak atxikitze sistemak jarriko dira, aurreko paragrafoan adierazitakoari jarraiki.

Usurbil-Añorga tartearen eraginpeko eremuko ur-puntuen inbentarioa egin beharko da, eta horien detailezko kartografian honako hauek zehaztu beharko dira: kokapenak, emariak, funtzionamendu-erregimena, aprobetxamenduak eta eraginei buruzko azterlana.

Iturburuetan eraginak atzematen eta identifikatzen badira, babes-, zuzenketa- eta zaintza-neurri beharrezkoak hartuko dira, iturburu horien funtzio ekologikoari eta/edo ustiapenari eusteko.

c) Obrako makinak edukitzeko eta makina horien mantentze-lanak egiteko tokiak drainatze naturaleko saretik bereiziko dira. Zola iragazgaitza eta efluenteak biltzeko sistemak izango ditu, lurzorua eta ura olio eta erregaien eraginaren ondorioz kutsa ez daitezten. Erregaien zamalanak, olio-aldaketak eta tailerreko jarduerak ezin izango dira horretarako adierazitako eremuetatik kanpo egin.

d) Obretan hidrokarburoen xurgatzaile espezifikoak (biribilki modukoa, material pikortatua...) jarri beharko da eskura, ustekabeko isuri edo ihesen bat gertatuz gero berehala aplikatu ahal izateko.

e) Bai obren fasean bai ustiapenaren fasean sortutako efluenteen isurketek bete beharko dituzte isurketa horiek baimentzeko eskumena duen organoak kasu bakoitzerako ezarritako baldintzak.

2.c.3.— Airearen kutsadura saihesteko neurriak.

a) Obrek dirauten bitartean, ibilgailuak iragan osteko garbiketa-lanak zorrotz kontrolatuko dira, bai obrek eragindako ingurunean, bai obretara sartzeko eremuetan. Ureztaketa- eta garbiketa-sistema bat jarriko da, aldi baterako estali gabe dauden lurzoruetan edo ibilgailuak pasatzean material partikulatuen igorpenak eragin ditzaketen lurzoruetan erabiltzeko.

b) Obra-eremuetako irteeratan ibilgailuak garbitzeko gailuak jarriko dira, solidoak biltzeko sistema eta guzti.

Aipatutako elementuen ezaugarriak, kokapen zehatza eta neurriak ebazpen honetako 2.c.12 paragrafoan zehaztutako dokumentazioan adierazi beharko dira.

c) Indusketa-materialen garraioa egingo da hezetasun-baldintza hoberenetan, karga estaltzeko baliabideak dituzten ibilgailutan, lohiak edo partikulak sakabanatzea saihesteko.

2.c.4.— Soinuek eta bibrazioek eragindako eragina gutxitzeko neurriak.

a) Eraikitze fasean aplikatu beharko dira ingurumen-inpaktuari buruzko azterketan zehaztutako praktika onak, bai obretako makinen mantentze orokorrari bai zarata eta bibrazioa jatorrian murrizteari dagokionez; batez ere, eragin handienak sor daitezkeen obra-eremuetan, esate

baterako, Kontxa pasealekurako sartzeko arrapala, Errondo pasealekua eta Pasaiaiko geltokia, eta, Herrera-Galtzaraborda tartean, tunel artifiziala eta hasierako eta bukaerako eremuak.

b) Tunela zulatze lanak egitean, bibrazio handiena eragiten duten metodoak (mailu hidraulikoak eta abar) ahalik eta gutxien erabiliko dira inguruko eraikinetan eragin nabarmena izan dezaketen eremuetan.

c) Urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuak, zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duenak, 22. artikuluan xedatutakoari jarraiki, zonakatze akustiko, kalitate-helburu eta soinu-igorpenei dagokionez, obrak egitean erabiliko diren makinak egokitu egin beharko dira kanpoan erabiltzeko makinen soinu-igorpenei buruz indarrean dagoen araudian ezarritako aginduetara; bereziki, eta hala badagokie, otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuak, kanpoan erabiltzeko makinek ingurumeneari sortzen dituzten soinu-igorpenak arautzen dituenak, eta arau osagarriek ezarritakora egokitu beharko dira.

d) Leherketak eginez gero, UNE 22-381-93 arauaren arabera egin behar dira; hortaz, proiektuaren eragin-eremuan dauden eraikinetan eragindako bibrazioek ezingo dituzte arauan ezarritako mugak gainditu.

Aireko uhinaren presioari dagokionez, ezingo ditu 128 dB(L) gainditu -muturreko balioak- eraikuntzen agerieneko fatxadan.

Sustatzaileak banan-banako informazio sistema antolatu behar du indusketa-eremutik hurbil bizi direnentzat. Horrela, auzokoek zehatz jakingo dute zer-nolako neurriak hartu behar dituzten leherketek eragiten dituzten bibrazioen eta aire-uhinaren ondorioak gutxitu eta kontrolatzeko.

e) Trenbide-azpiegiturek, funtzionamenduaren faserako aurreikusitako kanporako irtenbidea daukaten ekipamenduak barne hartuta (aireztatze-zuloak, geltokietarako sarbideak, eta abar), beharrezko neurriak hartu beharko dituzte, dagozkien eremu akustikoen kanpoko eta barneko ingurumeneari ez igortzeko zaratarik, aipatutako urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 23. artikuluan xedatutako mugak gainditzeko dituenik.

Halaber, beharrezko neurriak hartuko dira, trenbidearen funtzionamenduak zuzenean edo zeharka eragindako ondorioak direla-eta, aipatutako urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 14. eta 16. artikuluetan zaratari dagokionez xedatutako mugak gainditzea saihesteko.

f) Aurreikusitako mugak gainditzeko direla egiaztatuz gero, igorpenak, hedapenak eta immisioak zuzentzeko sistema egokiak jarri beharko dira, eremu bakoitzari dagokion erabileraren arabera, inpaktu horiek murriztea helburu hartuta.

g) Aipatutako urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 26. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, beharrezko neurriak hartuko dira, etxebizitzetarako, egoitzetarako, ospitaletarako, edota hezkuntzarako nahiz kulturarako eraikinen barrura ez helarazteko bibrazioak, kalitate akustikoari buruzko helburuak gainditzea eragiten dutenik, aipatutako arauaren 16. artikuluari jarraiki, IV. eranskinean ezarritako prozeduraren arabera ebaluatutik.

2.c.5.– Hondakinen kudeaketa.

Proiektua gauzatzeko egin behar diren betetzeetan, material hauek baino ez dira erabiliko:

- Behar bezala baimendutako erauzketa-jardueretatikoa agregakinak.
- Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen I. eranskinean adierazitako EBA-A Ebaluazioko Balio Adierazleak baino kutsatzaile-kopuru txikiagoa duten materialak, obra honetakoak edo beste obra batzuetako indusketetatik ateratakoak.

- Zepa beltzak, arku elektrikoko labeetan altzairua ekoizten sortu eta balioztatze-prozesutik igaro ondoren, otsailaren 18ko 34/2003 Dekretuan ezarritako moduan. Dekretu horretan dago araututa Euskal Autonomia Erkidegoan altzairua arku elektrikoko labeen ekoiztean sortzen diren zepak balioztatu eta gerora erabiltzea.

Obra honetako indusketetakoak ez badira, prestamo-materialak erabiltzea uztailaren 28ko 22/2011 Legean, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoan, ezarritako araubidearekin bat egingo da,

2.c.6.– Hondakinak kudeatzeko neurriak.

a) Obrek iraun bitartean eta proiektua abian jarri ostean sortuko diren hondakin guztiak kudeatuko dira uztailaren 28ko 22/2011 Legean, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoan, eta arautegi zehatzetan xedatutakoaren arabera.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, behar bezala baimendutako balorazio-prozesua batera destinatu beharko da al baitanez. Lehentasunak, ordena honetan egingo dira: berriro erabiltzeko prestatzea; birziklatzea; beste balorazio mota bat, balorazio energetikoa barne dela. Hondakinak ezabatzeko, aldeztatik justifikaturik geratu bada euren balorazioa ez dela bideragarria teknikoki, ekonomikoki ez eta ingurumenaren alderik.

b) Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak kudeatzeko, otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuak, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen duenak, ezarritakoa aintzat hartuko da. Horren haritik, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak kudeatzeko azterlank bildu beharko dira eraikuntza-proiektuetara, otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretu horren 4.1.a) artikuluan ezarritako edukiarekin.

c) Zabortegira eramateko hondakinak kudeatuko dira abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretuak, hondakinak hondakindegian utzita ezabatzea arautzen duenak, eta otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak, hondakinak hondakindegietan biltegitututa eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duenak, xedatutakoari jarraikiz. Hondakin horiek karakterizatu egin beharko dira, 2002ko abenduaren 19an Kontseiluak hartutako 2003/33/EE Erabakiaren arabera, 1999/31/EEE Zuzentarauaren 16. artikuluen eta II. eranskinari jarraiki hondakinak zabortegietan onartzeko irizpide eta prozedurak ezartzen dituenaren arabera.

Jarduerako soberakinak betelanak egiteko erabiltzen badira, aipatutako otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan ezarritako baldintzak bete beharko dira.

Kutsatzaile-edukia ebaluazioko balio adierazleetan (EBA-A) ezarritako baloreen azpitik daukaten materialak soilik baimenduko dira betelanetan. Adierazle horiek jasota daude otsailaren 4ko 1/2005 Legean, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoan, I. eranskinean, hain zuzen.

d) Obra horietako indusketetan ateratako soberakinei dagokienez, proiektuaren sustatzaileak proposatu du eraikuntza-material gisa erabiltzea inguruko eremuetan egin daitezkeen beste obra batzuetan.

Usurbil-Añorga tarteari dagokionez, sustatzaileak osatu egin zuen hasierako proposamena, non adierazten baitzuen material horiek Coto Mari Luz Aundi harrobian utz litzakeela, izan ere, sasoi hartan ez zeukan-eta jarduera-planik.

Lugaritz-Anoeta eta Herrera-Galtzaraborda tarteei dagokienez, sustatzaileak ez du aurkeztu proposamen horren garapen zehatzurik, behin betiko tokiak eta balantzeak adierazten dituenik.

Halere identifikatu ditu jarduera zehatzak, obretatik gertu daudenak, ziur aski aldi berean gauzatuko direnak, eta betelanelarako material harritsua beharko dutenak.

Nolanahi ere, kutsatu gabeko lurzoruak eta obretan induskatutako material naturalak erabiliko dira uztailaren 28ko 22/2011 Legean, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoan, ezarritako araubidearen arabera, betiere eraikuntzarako erabiltzen badira, egoera naturalean, ateratako lekutik beste toki edo obra batzuetara eramanda.

Kudeaketarako araubide hori ez da aplikatuko induskatutako material horiek baldin badaude uztailaren 21eko 22/1973 Legeak, meategien erregimenari buruzkoak, xedatutakoaren aplikazio-eremuan.

Edozein inguruabar dela medio, indusketako soberakinak pilatzeko biltokiak egin beharko balira, betelana egiteko proiektu bat idatziko da, eta haren edukia otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan ezarritakora egokituko da. Gainera, agiri hauek aurkeztu beharko dira: kontuan hartutako kokalekuetako bakoitzak ingurumenean duen eraginaren analisia, hartutako irtenbidearen justifikazioa, aurreikusitako lehengoratzeko- eta kontrol-neurriak, eta dagokien aurrekontu xehatua.

Obrak amaitzean, proiektuaren sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetzara bidali behar du lur-mugimenduaren balantze zehaztua, bai eta indusketako soberakinen jarraipena ere, ateratako lekutik beste toki edo obra batzuetara eramanda eraikuntzan erabili dituzten materialen ezaugarriak eta kopuruak berariaz adierazita. Gainera, erabilera horretarako gaitzen duten baimenak aurkeztu behar dira, hondakinei buruzko araudiaren esparrukoak edota meategiei buruzko araudiaren esparrukoak.

e) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemek independenteak izan behar dute, izan ere, isuriren bat gertatu eta nahastuz gero, haien arriskugarritasuna handituko litzateke, edo haien kudeaketa zaildu egingo litzateke.

Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek bete beharko dituzte uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak, hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarritzko Legea betearazteko Erregelamendua onartzen duenak, 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrin ez daitezen.

Aurreko puntuan aipatutako ontziek etiketatuta egon beharko dute; etiketa horiek argiak, irakurtzeko modukoak eta ezabaezinak izan beharko dute, eta uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen arabekoak.

f) Olio erabilia kudeatzeko honako xedapen hauek hartuko dira kontuan: ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretua, industriako olio erabiliaren kudeaketa arautzen duena, eta irailaren 29ko 259/1998 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan olio erabiliaren kudeaketa arautzen duena.

Baimendutako kudeatzaile bati eman arte, olio erabilia andel iragazgaitzetan bilduko da, estalitako biltegi batean. Andel horiek etiketa zuzenak izan eta zola iragazgaitzen gainean egon beharko dute, edozein ihesi edo isuriri aurre egiteko prestatuta.

g) Arau horiek betetzea errazteko, lan-mota bakoitzean sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak ezarri beharko dira. Lan horien arduradunek kudeatuko dituzte sistemak, langileek sistemak zuzen erabiltzen dituztela ziurtatzeko ardura izango baitute. Bereziki, inolaz ere ez da sortuko eragingo kontrolatu gabeko efluentetik erregai eta produktuak biltegiratzean, makineria mantentzeko lanak egitean edo hondakinak erretzean.

h) Obrak egiteko fasean, kontratistaren instalazio-eremuetan hondakin arriskutsuak (olio-poteak, iragazkiak, olioak, margoak, eta abar) pilatzeko eremu jakin bat egokituko da. Gainera, hondakin geldoentzako edukiontzia jarriko dira, hondakin arriskutsuen guneeetatik bereizita. Era berean, sortzen diren hondakinak biltzeko gailu iragazgaitzak jarriko dira (bidoiak, eta abar) eta hondakin horiek ezaugarrien arabera bereiziko dira, aipatutako gune garbian aldi baterako pilatu aurretik.

i) Obretan sortutako hondakinen ingurumen-jarraipena jasoko duen txosten bat egin beharko da, eta txosten horrek, indarrean dagoen legeriak jasotzen dituen hondakinen kontrolerako, jarraipenerako eta onarpenerako agiriak izan beharko ditu.

2.c.7.— Lurzoruaren kalitatea aurreikusitako erabilerekin bateragarria dela bermatzeko neurriak.

a) Proiektuko inguruan zenbait kokapen atzeman dira, irailaren 30eko 165/2008 Dekretuan, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioari buruzkoan, barne hartuta daudenak. Kokapen horiei dagokien kasu bakoitzerako aurreikusten diren jardueren dagokien, lurzoru kutsadura prebenitzeko eta konpontzeko, otsailaren 4ko 1/2005 Legean xedatutakoa bete beharko da.

b) Ekainaren 30eko 165/2008 Dekretuan barne hartutako partzela baten gainean proiektatu da Lasarteko tailer eta kotxetegiaren eraikuntza. Eremu horretan ezin jarduketa egin aurretik, lurren karakterizazio-azterlan bat egin beharko da, batetik, indusketako materialen destino egokiena zehazteko, eta, bestetik, honako hau bermatzeko: geratzen den lurraren kalitatea bateragarria dela kokapen hartarako aurreikusitako erabilerekin.

c) Lugaritz-Anoeta tarteari dagokionez, obrek eragiten dien eremutik hubilekoetan, zehazki, trenbide-azpiegituren kanpoko geroko elementuen (igogailua eta geltokira sartzeko kanoiak) alboan kokatutakoetan, hiru kokapen identifikatu dira, irailaren 30eko 165/2008 Dekretuan barne hartutakoa. 200069-00236, 200069-00235 eta 200069-00028 kokapenak dira.

Partzela horien edo inbentarioan sar daitezkeen beste batzuen inguruetan egiten diren indusketen kontrola areagotu egingo da; eta kutsadura-arrastorik atzematen da, materialak eraman baino lehen, horien karakterizazio-azterlan bat egingo da eta euren erabilera eta kudeaketarako proposamen bat idatzi beharko da; eta azterlan hori eta idazki hori Ingurumen Sailburuordetzari bidali beharko zaizkio, horrek onarpenaz erabaki har dezan.

d) Herrera-Galtzaraborda tarteari dagokionez, Molinaoko itsasadarraren eskuinaldean, bi lursail identifikatu dira (20064-00009 eta 20064-00013 kodeak), irailaren 30eko 165/2008 Dekretuan, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioari buruzkoan, barne hartuta daudenak.

Lursail horien zati batean, dagokion azpiegitura gauzatuko da tunel artifizial baten bidez, eta, tunel hori eraiki aurretik, aire zabaleko lubaki bat egin behar da.

Halaber, proiektuan aurreikusita dago lursail horietako beste eremu batzuetan kontratistaren instalazio-eremu bat jartzea obren faseak irauten duen bitartean.

Instalazio horiek eragindako eremuari eta aipatutako irailaren 30eko 165/2008 Dekretuan kontuan hartutako beste toki batzuei buruz, Pasaia Udalak ingurumen-organoari adierazi zion Molinaoko itsasadarraren ertzean parke bat egiteko proiektua gauzatu nahi zuela, eta lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenaren prozedura hastea eskatu zuen, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoak, xedatutakoari jarraikiz.

Prozedura horretan, Ingurumeneko sailburuordearen 2011ko irailaren 5eko ebazpenaren bidez, Pasaiaiko Udalarai baimena eman zitzaion, aipatutako lursail horietan materialak induskatzeko, aldeztetik aurrerantzat indusketa-planeari adierazitakoaren arabera.

Arestian jasotakoaren kalterik gabe, ebazpen honi dagokion proiektuan aurreikusitako tunel artifiziala eraikitzeke jarduerak jasota daude aipatutako otsailaren 4ko 1/2005 Legearen 17. artikuluan adierazitako kasuetan; horrenbestez, egoki da lurzoruen kalitateari buruzko adierazpenaren prozedura hastea. Kasu horretan, lur-mugimendua egiteke lizentziak, baimenak eta gainerako erabakiak emateke ezinbestekoa da ingurumen-organoak aldeztetik indusketa-plan bat onartzea, aipatutako lurzoruen kalitateari buruzko adierazpena egiteke prozeduraren esparruan.

Lursail horietan kontratistaren instalazio-eremua jartzeari dagokionez, une honetan ez dakigu eremu hori egokitzeke beharrezkoak izango diren jardueren norainokoa. Norainoko hori definitu ostean erabakiko da otsailaren 4ko 1/2005 Legean xedatutakoa aplikatu behar ote den. Nolanahi ere, eremu horretan materialak induskatuz gero, material horien ezaugarriak zehaztu beharko dira, hartara, lurra kutsa dezaketen jardueren ondorioz benetan kutsatu ote diren egiaztatu ahal izateke, eta, ezaugarrien zehazte horren emaitzak ikusita, material horiek kudeatzeko biderik egokiena erabakitzeke. Ezaugarrien zehazte horren emaitzak ingurumen-organoari bidali behar zaizkio, kudeaketari ekin aurretik aintzat har ditzan.

e) Bestalde, Herrera-Galtzaraborda tartean, P.K. 0+300ren parean, beste toki bat identifikatu da, hura ere irailaren 30eko 165/2008 Dekretuan kontuan hartua (20069-00158 kodea). Kasu horretan, ordea, tunela harkaitzean egin beharko da, zulatzeko teknikaz baliatuta, eta trenbidearen oinarria geratuko da 30 metro inguru beherago, egungo kota baino. Gainera ez da jarduerarik aurreikusi, ez eta gainerako jardueren ondorioz kutsa daitezkeen lurzoruetan eragindako ondorioz ere; horrenbestez, kasu horretan ez da beharrezkoa lurzoruen kalitateari buruzko adierazpenaren prozedura hastea. Halere, puntu hori dagokionez, proiektua aldatuz gero eta material kutsatzaileak izan ditzaketen lurzoruetan eraginen bat izanez gero, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoak, xedatutakoa bete beharko da.

f) Aurrekoaren kalterik gabe, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten lekuak aurkitzen badira obrak gauzatzean, edo lurzorua kutsatzen duten substantziak daudela pentsatzeko arrazoi sendoak baldin badaude, otsailaren 4ko 1/2005 Legean lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko ezarritakoa beteko da, halaber.

2.c.8.– Kultura-ondarea babesteko neurriak.

Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritako gainerako xedatutakoaren aurka egin gabe, eta, halaber, ondare arkitektoniko gisa katalogatutako erakinen babesteko ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanean proposatutako neurri babes- eta zuzentze-neurriak hartzearen kontra egin gabe, baldin eta lanetan aztarna arkeologikoren bat egon daitekeela pentsarazten duen zerbait aurkitzen bada, berehala jakinaraziko zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Departamentuari; gero, beharrezkoa izanez gero, berak erabakiko du zer neurri ezarri.

2.c.9.– Obrak lehengoratu eta integratzeko neurri zuzentzaileak.

a) Proiektuak eragiten dien espazioak leheneratzeko jarduketak, landarediak birjartzeko proiektuetan jaso dira, eta proiektu horiek eraikuntza-proiektuetan sartuko dira. Obrak kontratatzeke aurrekontuek zein pleguek honako hauek jaso beharko dituzte: landaredia berriro jartzeko

proiektuetan aurreikusi aurrekontu-sailak eta baldintza teknikoak; betiere, hala, proposatutako jarduketak egoki gauza daitezen.

Landaredia berriro jartzeko proiektuak idazteko, honako hauetan jasotako jarraibideak izango dira kontuan: (Usurbil-Añorga tarte) 2004ko irailaren 30ean, sustatzaileak bidalitako dokumentuaren 4. eranskina; «Loyola-Herrera tarte. Lasarte-Hendaia Linea bikoizteko trazaduraren proiektuko landaredia berriro jartzeari buruzko ohar osagarria», 2008ko otsailaren 29an sustatzaileak bidalitakoa (Loiola-Herrera tarte). Eta horretaz gain, beheagoko epigrafeetan jasotako neurri zuzentzaileak ere errespetatu beharko dira.

b) Obrak eragiten dien eremuak leheneratu egingo dira, eta horien artekoak izango dira: erabiltzen ez diren trenbide-tarteak; eta ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanetan jaso ez eta azkenean obrak aldarazten dituenak. Leheneratze horrek honako hauek ekarriko ditu: urbanizatu gabeko eremuei eragiteari dagokionez landaredia berriro jartzea eta, eta eremu urbanizatuari dagokienez lorezaintzako elementuak birjartzea.

c) Lur-mugimenduak egitean, lur begetala baztertu, metatu eta era bereizian zabalduko da, eraginpeko eremuaren lehengoratzeko eta landare-berritzea errazteko. Landare berriak landatzean kenduko den landaretza-lurra modu egokian biltegitratuko da, lurra ez trinkotzeko, modu desegokian ez pilatzeko, eta euria egiten duen egunetan gaizki ez manipulatzeko. Gainera, metatutako lurak egoki mantenduko dira, eta, behar izanez gero, hidroereinketa erabiliko da.

d) Landarediari eragiten zaizkin aldaketak honelaxe leheneratu dira; eragindako eremuetako landarediko espeziak landatuaz.

e) Lur gorriak higa ez daitezen, obrek eragindako eremuak lehengoratzeko jarduerak, ahal dela, obrak egiten diren aldi berean egingo dira, obrek aurrera egiten duten heinean birmoldatzeko eta landare-berritzeko lanak egin daitezen.

f) Ingurua lehengoratu ondorengo bi urteetan, mantentze-lanak egingo dira: lurra aitzurtu, ongarritu, ureztatu eta hutsarteak landareberritu. Ereindako edo landatutako eremuak mantentzeko lanetan, ahalik eta herbizida eta pestizida gutxien erabiliko da, eta prozedura mekanikoei lehentasuna emango zaie. Herbizidak eta pestizidak ezinbestekoak izanez gero, iraunkortasun eta toxikotasun txikiena duten produktuak erabiliko dira.

g) Robinia pseudoacacia, Fallopia japonica, Cortaderia selloana edo beste landare inbaditzaileak ez zabaltzeko ekintzak burutuko dira. Alde horretatik, landare-estalkia lehengoratzeko erabilitako lurren jatorria kontrolatu beharko da, espezie horiekin kutsatutako lurak ez erabiltzeko.

h) Ezpondek dituzten ezaugarriak direla-eta beharrezkoa bada, goieneko erretenak eraikiko dira, haien higatze- edo mugimendu-prozesuak agertzea edo erreaktibatzea ekiditeko; hartarako, finkatze-teknikak erabiliko dira, eta hala, integrazioa paisajistikoa azkar egingo da eta ezpondak higatzeko arriskuak gutxitu egingo dira. Terreno naturalaren eta ezponden bat egiteak, ahal bada, honelaxe egingo dira: aristak barik forma borobilak erabiliaz, bai indusketa lanetan eta betetze-lanetan, betiere haien kalitate estetiko hobe lortzearen.

i) Proiektuan jasotako fabrika-obretan, haiek ingurunean paisajistikoki egoki integratzeko irizpideak baliatuko dira. Eraikuntza-proiektuak tratamendu estatikoa eta integrazio paisajistikoa jaso beharko ditu hain justu ere murreratu eta zubi-bideen pilarkeri dagokienez. Proiektuan aurreikusitako euri-hodien tratamendu paisajistikoa egin beharko da; hartarako, hormigoizko euri-hodien orde ingurunea hobeto integratzen direnak erabiliko dira; esate baterako, oinarria harritzatua dutenak; horretaz gain, ertzetan landaredia jarri beharko da berriro.

2.c.10.– Garbiketa eta obra bukatzea.

Obra amaitu ondoren, garbiketa-lan zorrotza egingo da, eta proiektuaren eragina izan duen eremuan obra-soberakin guztiak kenduko dira, erabat garbi utzi arte. Eraispenetatik, enkofratuak kentzetik, eta oro har, garbitze-lanetan sortutako hondakinak lanen eremutik kendu eta ebazpen honetako 2.c.6 idatzi-zatian xedatutakoaren arabera kudeatuko dira.

2.c.11.– Ingurumenari buruzko aholkularitza.

Obrak amaitu arte eta bermealdiak dirauen bitartean, ingurumen-gaietan eta neurri babesle eta zuzentzaileetan ondo jantzitako aholkularitza eduki beharko du obra-zuzendaritzak, ebazpen honetan eta ingurumen-inpaktuaren azterketan zehaztutakoaren arabera. Baldintza-agiriak obraren zuzendaritzari esleitzen dizkion funtzioekin lotutako ebazpenak egiteko, beharrezkoa izango da aholkularitza hori ematen duten adituek txostena egitea aurrez.

2.c.12.– Lan-programaren diseinua.

Obrak hasi aurretik, kontratistek jarduera-proposamen zehaztu batzuk egin beharko dituzte ondorengo azpiataletan adierazitako alderdiei buruz. Proposamen horiek lanen gauzatze-programekin batera jasoko dira eta lanen zuzendariak berariaz onartu beharko ditu, ebazpen honetako 2.c.11 idatzi-zatian aipatutako ingurumen-aholkularitzak txostena egin ondoren. Agiriak hauek dira:

- Obrek eragiten dion eremua maximoa zehaztasunez kartografoian seinaleztatua, zeina ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanetan jasotakoari egokituko baita.
- Kontratistaren instalazio-eremuen mugak eta ezaugarriak, ebazpen honen 2.c.1 idatzi-zatian aurreikusitakoari jarraikiz.
- Ebazpen honen 2.c.1 idatzi-zatian zehaztutakoaren arabera babestu beharreko zuhaitzak eta zuhaitz-unadak mugatzea eta balizatzea.
- Ebazpen honen 2.c.2 idatzi-zatian aurreikusitako urak bideratzeko sareen eta efluenteak tratatzeko gailuen kokalekuak eta ezaugarriak.
- Ebazpen honen 2.c.3 idatzi-zatian aurreikusitakoaren arabera, kamioien gorpilak obretatik irteteen garbitzeko gailuen kokalekuak eta ezaugarriak.

2c 13.– Tailer eta kotxetegien funtzionamendurako zuzenketa-neurriak.

Lasarteko tailer eta kotxetegien funtzionamenduaren faserako, isurkin kutsatzaileak kudeatzeko egitasmo bat prestatu beharko du proiektuaren sustatzaileak, zeinak gutxienez honako informazioa jaso beharko duen:

- Hondakinak, hondakin-urak eta atmosferarako isurketak ekarriko dituzten prozesuen deskribapena.
- Horien ezaugarriak zehaztea eta bai bolumena ere.
- Hondakinak, hondakin-urak eta atmosferarako isurketak bildu, biltegiratu eta tratamendua egiteko sistemen deskribapena, indarreango arauduan ezarritako kalitate-helburuak ere zehaztuaz.

Bestalde, zuzenketa-neurria hauek bete beharko dira:

2.c.13.1.— Hondakin-uren kudeaketa:

Tailerrak eta kotxetegiak eraikitzeako proiektuak detailez jaso beharko ditu aipatu jardueraren ondoriozko uren tratamendua egiteko dispositiboak. Efluenteak ezaugarriak eta haiek isurtzeko betekizunak kontuan izanik proiektatu beharko dira direlako dispositiboak.

2.c.13.2.— Atmosferarako isurketen tratamendua.

Airearen kalitateari eta atmosfera babesteari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legean xedatutakoari egokituko dira instalazioak Eta zehazki alderdi hauek jaso beharko dituzte:

- Jardueran sortutako gasen kaptazioa eta ebakuazioa.
- Isurketa-guneen gehieneko igortze-balioak, aurreikusitakoa.
- Isurketen zenbaketa eta kontrola, beharrezko tresnen instalazioa barne dela.

2.c.13.3.— Hondakinen kudeaketa.

a) Hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean eta arautegi espezifikoetan xedatutakoaren bat etorriaz, kudeatu beharko dira tailer eta kotxetegietan sortutako hondakinak.

Erabilitako olioari dagokienez: irailaren 29ko 259/1998 Dekretua, koipe erabiliak EAEn nola kudeatu behar diren arautzen duena.

b) Hondakin eta lur kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean eta arautegi espezifikoetan xedatutakoaren bat etorriaz, sustatzaileak eskatu egin beharko du hondakin kutsakorrak ekoizten dituenaren baimena.

c) Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, behar bezala baimendutako balorazio-prozesua batera destinatu beharko da hondakin oro, alaitanez. Ordena hauxe lehenetsiko da: berriro erabiltzeko prestatzea; birziklatzea; beste balorazio mota bat, balorazio energetikoa barne dela. Hondakinak ezabatu ahal izango dira soilik aldez aurretik behar bezala egiaztatuz gero teknika, ekonomia edo ingurumen aldetik ez dela bideragarria hondakin horiei balioa ematea.

d) Hondakinen aldi baterako biltegiatzea eta garraioa haiek ingurumenean ez sakabanatzeko eran egin beharko da. Hondakin arriskutsuak behar bezala etiketatutako andel iragazgaitzetan bilduko da, estalitako biltegi batean. Andel horiek zola iragazgaitzen gainean egon beharko dute, wtA edozein ihesi edo isuriri aurre egiteko prestatuta egon beharko dute (hondakin likido eta oretsuen kasuan).

2.c.13.4.— Zaraten transmisioari mugak.

Tailer eta kotxetegietan beharrezko neurriak hartu beharko dira, instalazioak kanpoko ingurumenera urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren III. eranskinetik B1 taulan muga-balio gisa ezarritako zarata-mailak baino handiagoak ez transmititzeko. Errege Dekretu horren bidez, azaroaren 17ko 37/2003 Legea, zaratari buruzkoa, arau horren IV. eranskinetik prozeduren arabera ebaluatutako zonakatze akustikoari, kalitate-helburuei eta isuri akustikoei dagokienez garatzen da. Hauek dira, hain zuzen, muga-balioak:

Eremu akustiko mota	Zarataren adierazleak		
	Lk,d (egunez)	Lk,e (arratsaldez)	Lk,n (gauez)
e) Gehienbat osasun, irakaskuntza eta kulturarako erabilera duten eta kutsadura akustikoaren aurkako babes berezia behar duten lurralde-sektoreak.	50	50	40
a) Gehienbat bizitegi-erabilera duten lurralde-sektoreak.	55	55	45
d) Gehienbat hirugarren sektoreko lurzoruak dituzten lurralde-sektoreak, c atalean adierazi gabeak.	60	60	50
c) Gehienbat jolas-jardueretarako eta ikuskizunetarako erabilera duten lurralde-sektoreak.	63	63	53
b) Gehienbat industria-erabilerarako lurzorua duten lurralde-sektoreak.	65	65	55

Ezarritako zarata-immisioaren muga-balioak errespetatzen direla joko da, aipatutako IV. eranskinean ezarritako prozeduren arabera ebaluatutako adierazle akustikoen balioek, urtebeteko epean, honako baldintza hauek betetzen baldin badituzte:

- Urteko batez bestekoek ez dituzte gainditzen aipatutako III. eranskineko B1 edo B2 taulek ezarritako balioak.

- Eguneroko balioek ez dituzte 3 dB-tan gainditzen aipatutako III. eranskineko B1 edo B2 taulek ezarritako balioak.

- Lkeq, Ti indizean neurtutako balioek ez dituzte 5 dB-tan gainditzen aipatutako III. eranskineko B1 edo B2 taulek ezarritako balioak.

2.D.– Ingurumena Zaintzeko Programa.

Ingurumena zaintzeko programa proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egingo da sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan aurreikusitakoaren arabera. Gainera, ondoren zehaztuko diren beste kontrol hauek ere erantsi behar zaizkio.

Programa hori, halaber, obra kontratatzeke baldintza-agirietan erantsi beharko da, eta baldintza horiek beteko direla bermatuko duen aurrekontua izan beharko du.

2.d.1.– Gorabeheren erregistroa.

Obrak egin ahala sortutako gorabeheren erregistroa egin beharko da, bai eta neurri babesleak zein neurri zuzentzaileak noraino bete diren jasotzeko erregistroa ere. Erregistro hori Ingurumen Sailburuordetzak ikuskatzeko moduan egon beharko da, eta, obrak amaitzen direnean, betiere, Sailburuordetzari igorri beharko zaio hori. Proiektua gauzatzean aldaketarik egin bada, aldaketa horiek xehetasunez adierazi beharko dira. Aldaketa guztiak, gainera, ingurumenean duten eraginaren ikuspegitik justifikatu behar dira.

2.d.2.– Obraren okupazio-mugen kontrola.

Egiaztatu behar da gauzatutako okupazioa proiektuan aurreikusitakoarekin bat datorrela, obrek aurreikusitako azaleran soilik izan dutela eragina, eta babes-zedarriak egoera onean daudela.

Halaber, kontrolatu behar da makinak, instalazio osagarriak eta soberakin-biltokiak leku egokian eta egoera onean daudela. Gainera, guztiak ere neurri zuzentzaile egokiak dituztela bermatuko da (drainatzea, dekantazio-sistemak, hidrokarburoen bereizleak, gurpilak garbitzeko sistemak, eta abar).

2.d.3.– Uren kalitatearen kontrola.

Oro har, uretara igorpenak egiteko arriskua dakarten obretan astean behin egiaztatuko da ezen, uretara isuri aurretik bideratzeko, drainatzeko eta atxikitze gailuek ondo funtzionatzen dutela.

Halaber, ebazpen honen 2.c.2 idatzi-zatian ezarritako solidoak atxikitze gailuetatik eta hidrokarburoak bereizteko gailuetatik datozen urak isuri aurretik analizatu egingo dira, bai eta gurpilak eta upelak garbitzeko sistemetatik datozenak ere. Hilean behin, honako parametro hauek analizatuko dira: emaria, pH, solidoak suspentsioan, olioak eta koipeak.

Gainera, Molinao erreka ibilguan eta inguruetan egingo diren lanek irauten duten bitartean, parametro hauek zehaztuko dira astero, obretatik abiatu eta ibaian gora eta ibaian behera joanda: partikula esekiak, hidrokarburoak, eta olio eta koipeak.

2.d.4.– Zaratak eta bibrazioak kontrolatzea.

a) Obren faseak irauten duen bitartean, zaraten eta bibrazioen jarraipena egingo da, haien eraginaren ondorioetarako sentikorrangoak diren eremuetan. Ateratako emaitzen arabera ebaluatuko da babesteko eta zuzentzeko neurri gehigarriak hartzeko premia. Bibrazioak kontrolatzeari dagokionez, kontuan hartuko dira mugimenduekiko sentikortasun handiko eraikinak, Herrera-Galtzaraborda tartearen proiektuaren 15. eranskineko inbentarioan jasota daudenak.

b) Bizilagundun etxebizitzetako ondarezko interesa duten higiezin inguruetan beharrezkoa bada leherketak egitea, ingurumena zaintzeko programak barne hartuko du eragin handiena duten fatxadetako bibrazioen kontrol ebentuala. UNE 22-381-93 Arauan ezarritakoari egokitu zaizkio neurketak, eta emaitzei buruzko aurkezpenean leherketari buruzko datu guztiak jasoko dira.

c) Linea berria zerbitzuan jarri ondoren, zaraten kontrol bat egin beharko da trenbidea gainazalean doan eremuetan.

Halaber, eraikin sentikorrenei eragindako bibrazioen kontrol bat egin beharko da.

d) Kontrolak diseinatzeko garaian kontuan hartuko dira azaroaren 17ko 37/2003 Legean, zaratari buruzkoan, eta hura garatzeko araudietan ezarritako metodologiak.

2.d.5.– Lehengoratzearen arrakasta kontrolatzea.

Bermealdian aldizkako jarraipena egingo zaio proiektuak eragindako gainazalen lehengoratzeari izan duen arrakastari.

2.d.6.– Tailer eta kotxetegi instalazioak, halaber, ingurumena zaintzeko programa bat jaso beharko dute; zeinarekin, atmosferara egindako isurketek (zaratak eta bibrazioak barne) eta hondakinen kudeaketari dagokienez, posible izango baita ezarritako neurri zuzentzaileen eraginkortasuna egiaztatzea. Eta honakoak ere jaso beharko ditu: egingo diren kontrol analitiko aldizkotasuna eta parametroak.

2.d.7.– Ingurumena zaintzeko programari buruzko agiri batekina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bateratua egin beharko du. Bertan, ingurumen eraginari buruzko azterlanean proposatutako betebeharrak eta ebazpen honetan jasotakoak bilduko dira.

Programa horretan, kontrolatuko diren parametroak eta parametro bakoitzerako erreferentziako balioak zehaztuko dira; horrez gain, laginketarako eta analisirako metodologia, kontrolerako puntuen kokapenari buruzko kartografia xehekatua, haien maiztasuna eta guztia gauzatzeko aurrekontuaren gaineko xehetasunak ere jasoko dira.

2.d.8.– Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisien eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaizkio. Bidalketa hori urtean behin egin beharko da, eta Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak ingurumenean aditua den erakunde batek egindako txostenarekin batera bidaliko dira. Aipatutako txostenean emaitzen analisia jasoko da, eta berariaz adieraziko dira epe horretan izandako gertakari nagusiak, bai eta haien balizko zioak eta konponbideak ere.

Sustatzaileak datuak euskarri egokian bilduko ditu bi urtez gutxienez eta datu horiek herri-administrazioen ikuskaritza-zerbitzuen eskueran egongo dira; hori guztia, hala ere, ez da eragozpen izango kasu bakoitzean aplikagarri den araudia betetzeko.

2.E.– Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egiturari eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala egitera bagaramatza, neurri babesle eta zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldatu ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, ingurumen-organoak, jardueraren sustatzailearen eskariz edo bere kabuz, neurri babesle eta zuzentzaileak edota ingurumena zaintzeko programa aldatzea erabaki dezake, baldin eta egoki baderitzo ingurumena zaintzeko programaren ondorioak ikusita edo neurri babesle, zuzentzaile edo konpentsatzaileek gerta daitezkeen ingurumen-inpaktuen inguruan erakusten dituzten gabeziak kontuan hartuta.

2.F.– Ebazpen honetako aurreko idatzi-zatietan ezarritakoaren kalterik gabe, sustatzaileak honako agiri hauek igorri beharko ditu Ingurumen Sailburuordetzara, onarpena eman diezaion:

2.f.1.– Ebazpen hau ematen denetik hiru hilabeteko epean, ingurumena zaintzeko programari buruzko agiri bategina, ebazpen honen 2.d.7. paragrafoan aurreikusia.

2.f.2.– Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruetan eragina duten obrak hasi aurretik, lurzoruaren (Herrera-Galtzaraborda tartea) kalitateari buruzko adierazpenaren prozedura hasteko eskabidea.

2.f.3.– Eraikuntza-proiektua onartu baino lehen, Lasarteko tailer eta kotxetegietako isurkinak kudeatzeko egitasmoa.

2.F idatzi-zatian aipatu agirietako bakoitza bidaltzen denetik hogeit eguneko epea igarota, berariazko erabakirik eman ez bada, kasu bakoitzean aplikatzeko den prozeduran aurrera egin ahal izango da.

2.G.– Halaber, eta aurreko idatzi-zatietan ezarritakoaren kalterik gabe, sustatzaileak honako agiri hauek igorri beharko ditu Ingurumen Sailburuordetzara, espedientean txerta ditzaten:

2.g.1.– Ebazpen hau ematen denetik hiru hilabeteko epean, ebazpen honetako 2.c.2 paragrafoan aurreikusitako ur-puntu eta iturburuen inbentarioa (Usurbil-Añorga tartea).

2.g.2.– Eraikuntza-proiektua onartu baino lehen, Lugaritz-Anoeta eta Herrera-Galtzaraborda tartetan eragiten zaien azaleretan berriro landaredia jartzeko proiektuak.

2.g.3.– Obrak amaitu eta 2 hilabeteko epea bete baino lehen, obrak egin bitartean sortu diren gorabeherei buruzko erregistroa, bai eta neurri babesle eta zuzentzaileak zer neurriraino bete diren adierazten duen agiria ere, ebazpen honetako 2.d.1 idatzi-zatian xedatutakoaren arabera.

2.g.4.– Obrak amaitu eta bi hilabeteko epea bete baino lehen, proiektuaren sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetzara bidali behar du lur-mugimenduaren balantze zehaztua, bai eta indusketako soberakinen jarraipena ere, ateratako lekutik beste toki edo obra batzuetara eramanda eraikuntzan erabili dituzten materialen ezaugarriak eta kopuruak berariaz adierazita. Gainera, erabilera horretarako gaitzen duten baimenak aurkeztu beharko ditu, hondakinei buruzko araudiaren esparrukoak edota meategiei buruzko araudiaren esparrukoak, hori guztia ebazpen honen 2.c.6 idatzi-zatian xedatutakoari jarraiki.

2.g.5.– Obrak amaitu eta bi hilabeteko epea bete baino lehen, obren fasean sortutako hondakinen ingurumen-jarraipenari dagozkion txostenak, ebazpen honetako 2.c.6 idatzi-zatian adierazitakoaren arabera.

2.g.6.– Urtero, obrak hasten direnetik, ebazpen honetako 2.d.8 idatzi-zatian aurreikusitako ingurumena zaintzeko programari buruzko dokumentua.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorreko 47.8 artikuluekin bat etorriaz, ingurumen-inpaktuari buruzko deklarazioan tarte bakoitzaren exekuzioa hasteko ezarritako epe indarrengoari eutsi egiten zaio. Epe hori igaro eta tarte jakin bat exekutatzen hasi ez bada (sustatzaileari ezin egotzi zaizkion zioak direla-eta), ingurumen-inpaktuari buruzko deklarazioak indarra galduko du delako tarteari doakionez. Hala ere, organo aginpidedunak hasiera emateko epea luzatu ahal izango du, behar bezala justifikatutako arrazoirik balego.

4.– Proiektuen ingurumen-inpaktuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urtarilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 14.3 artikuluan ezarritakoa betez, proiektuaren sustatzaileak aldez aurretik jakinarazi beharko dizkio ingurumen-organoari zein egunetan hasiko diren banakako ingurumen-inpaktuari buruzko deklarazioaren helburu izan diren bi tarteak, 2012. urteari dagokionez.

5.– Ingurumen-Inpaktuari buruzko deklarazio hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko ekainaren 21a.

Ingurumeneko sailburuordea,
M.^a ARANZAZU LETURIONDO ARANZAMENDI.